

A) EZINBESTEKO BALDINTZAK:

OHARRA: Hizkuntza-zuzentasuna eta oinarri etikoak betetzea *sine qua non* betekizunak dira gradu amaierako lan bat aurkeztu ahal izateko. Hizkuntz zuzentasunari buruzko itemen batean balorazioa EZ-NAHIKOA duten lanek zuzenean GUTXIEGI = 0 ebaluazioa izango dute azken lanean, gutxieneko baldintzak ez betetzearren. Era berean Profesionaltasun etikoko hitzarmena betetzen ez duten ikasleek ere 0 bat izango dute ebaluazio gisa eta ez dira ebaluatuak izango

A.1.Hizkuntz-zuzentasuna:

Indikatzaileak	Deskribatzaileak eta menderatze maila		
	Ez nahikoa	Nahikoa	Aurreratua
Ulermena oztopatzen duten akatsak	Atal batean baino gehiagotan ulermena oztopatzen duten hizkuntz egokitasun akats larriak ditu. Pasarte horiek ulertzea galaraziaz	Punturen batean badu ulermena oztopatzen duen hizkuntz egokitasun akatsen bat, baina orokorrean lana ongi jarraitzen da.	Hizkuntz egokitasun akatsen bat baldin badu ere ez du ulermena bereziki oztopatzen.
Erabilera ohiko kontzeptuetan ortografia eta gramatika zuzenak izango dira	Bere lanaren alorrean ohiko diren kontzeptuak sarritan ortografikoki edo gramatikalki era ez zuzen batean erabiltzen ditu	Bere lanaren alorrean ohiko diren kontzeptuak momentu puntualen batean ortografikoki edo gramatikalki era ez zuzen batean erabili ditu	Akats ortografiko edo gramatikalen bat egon daitekeen arren ez da bere lanaren alorrean ohiko diren kontzeptuetan

*Atal honetan ebaluazioa EZ-NAHIKOA baldin bada EPAIMAHAIK txantiloia jarraiki txosten bat egin beharko du ikasleak bere lana zuzendu dezan

A.2.Oinarri etikoak eta plagioa

- Ikasleak sinatuta entregatu du Profesionaltasun etikoko hitzarmena BAI/EZ
- Epaimahaiak argi du ikasleak ez dituela profesionaltasun etikoaren hitzarmeneko itemak errespetatu: Bai (ez dira errespetatzen)/Ez (errespetatu egiten dira)

*Atal honetan ebaluazioa EZ-NAHIKOA baldin bada EPAIMAHAIK txantiloia jarraiki txosten bat egin beharko du aurkitu dituen ebidentziak azalduaz

B) ERRUBRIKA

Lan idatzia: Ikerketa (% 25)						
Eremua	Adierazleak	Deskribatzaileak eta maila				
		Eskasa		Tartekoa	Aurreratua	
		1 (0-2)	2 (3-4)	3 (5-6)	4 (7-8)	5 (9-10)
Justifikazioa, esparru teorikoa eta bibliografia (% 6) *HH/LH G2 /GH G1	Bere lanaren egokitasun zientifikoa azaldu eta justifikatu du (% 3)	Ez du lortu egindako lanaren garrantzia azaltzea eta justifikatzea.	Aukeratutako lanaren garrantzia justifikatu du, baina zehaztasun edo xehetasun gutxirekin.	Bere lanaren egokitasuna eta garrantzia oinarritzko mailan azaldu eta justifikatu ditu.	Aukeratutako lana sendotasun handiz justifikatu du, eta testuinguru profesionalean eta/edo akademikoan duen garrantzia azaldu du.	Pisu handiko ebidentziak eman ditu, aukeratu duen lanaren gaia eta haren garrantzi berezia justifikatzeko.
	Literatura koherentziaz eta kontzeptuak antolatuta berrikusi du (% 3)	Gabezia nabarmenak izan ditu aurretiazko literatura aukeratzean eta erabiltzean.	Literatura maila onargarrian ulertu du, baina ez du lortu konexioak ezartzea edo hura antolatzea.	Aurretiazko literatura aztertu du modu koherentean eta kontzeptuak antolatuz, baina oinarritzko mailan.	Lotura egokiak ezarri ditu eremu akademiko bereko eragileen artean, eta informazioa modu koherentean jarri du.	Hainbat esparru akademikotako eragileen artean lotura egokiak ezartzeko gai izan da, modu ordenatuan.
Ikerlanaren garapena (% 12) *HH/LH G1 / GH G1G2G4	Ikerlanaren helburuak behar bezala zehaztu ditu (% 3)	Ikerlanaren helburuak ez ditu zehaztu edo gaizki adierazita daude.	Ikerlanaren helburuak zehaztuta daude, baina ez dute perspektibarik eta sakontasunik.	Ikerlanaren helburuak aztertutako problematikari lotuta daude.	Ikerlanaren helburuak argiak eta zehatzak dira, eta kontuan hartzen dute ikertutako problematika.	Ikerlanaren helburuak aztertutako problematikaren lehentasunezko eta bigarren mailako alderdiei lotuta daude, eta azterlanari sakontasuna ematen diote.
	Metodologia ondo azaltzen du eta egokia da (% 3)	Ez du erabilitako metodologia azaltzen	Metodologia atal bat dauka baina erabilitako metodologia ez da egokia ikerketa helburuak lortzeko	Helburuak lortzera bideratutako metodologia bat azaltzen du baina sakontasun gutxirekin	Erabilitako metodologia egokia da helburuak lortzeko eta era logiko batean azaltzen du	Erabilitako metodologia egokia da helburuak lortzeko eta bere aipostasuna argudiatuz era sakonean azaltzen du
	Emaitzak modu ordenatuan eta arrazoituan azaldu ditu (% 3)	Emaitzak egiturarik gabe azaldu ditu, eta horregatik, nekez ulertzen dira.	Ikerlanaren emaitza nagusiak azaldu ditu, baina zenbait alderdi ez daude behar bezala azalduta edo justifikatuta.	Ikerketan emaitza oparoak azaldu ditu baina antolamendu ez guztiz argiarekin	Ikerlanaren emaitzak modu argian eta antolatuan azaldu ditu.	Ikerlanaren emaitzak azaltzean hauetara nola heltzeko prozesua ere azaldu du hau menperatzen duela erakutsiaz
	Emaitzetan oinarritutako eta helburuekin bat datozen ondorioak azaltzen dira (% 3)	Ez dira emaitzetan oinarritutako eta helburuekin bat datozen ondorioak azaltzen	Ondorioak emaitzei edo helburuei erreferentzia egiten dieten arren ez da lotura egokirik egiten	Ondorioek emaitza eta helburuei erreferentzia egin eta lotura xumeak ezartzen dituzte	Ondorioak emaitza eta helburuetan oinarritzen dira bien arteko lotura logikoak eginaz	Ondorioak emaitza eta helburuetan oinarritzen dira balio erantsiko ekarpen berritzaileak eginaz alorrari

Diskurtso akademikoa (% 7) *HH/LH G4 / GH G3	Lanaren esparru akademikoko lexikoa erabili du (% 1)	Hiztegi mugatua, laua eta zehaztasun txikikoa erabili du, eta horregatik, zaila da lana ulertzea.	Batzuetan hiztegi espezializatua erabili du, baina gabezia nabariek.	Lanaren esparru akademikoko hiztegia erabili du.	Esparru akademikoaren berezko terminologiaren ezagutza sendoa du, eta zehazki erabili du.	Lexiko sofistikatua erabili du, gaia erabat menderatzen duela erakutsiz.
	Egitura gramatikal konplexuak erabili ditu lanaren ideiak antolatzeko, eta ortografia menderatzen du (% 1)	Egitura gramatikal oinarrikoegiak erabili ditu eta akats ortografiko ugari egin ditu. Horregatik, zaila da mezua ulertzea.	Egitura gramatikal sinpleak erabili ditu, eta tarteka akats gramatikalak eta ortografikoak daude.	Egitura gramatikal sinpleak baina zuzenak erabili ditu, laneko kontzeptuak lotzeko. Akats ortografiko gutxi daude.	Egitura gramatikal konplexuak erabili ditu, eta mezua ulertzen laguntzen dute. Ez dago akats ortografikorik.	Egitura gramatikal aurreratuak menderatzen ditu, eta mezua ulertzen laguntzen dute. Ez dago akats ortografikorik.
	Diskurtsoa modu objektiboan eraiki du (saihestu ditu iritzi pertsonalak egoki ez diren uneetan, balorazio adjektiboak, 1. pertsona, lexiko konnotatiboa, etab.) (% 1)	Diskurtsoa subjektiboa da nagusiki, objektibotasunik gabea, eta GRALaren egilearen presentzia nabarmena da.	Diskurtsoa objektiboa da, baina zehaztasun eta subjektibotasun zama handiarekin.	Diskurtsoan iritzi pertsonalak saihestu ditu, eta GRALaren egilearen presentzia txikia da.	Diskurtsoa objektiboa da nagusiki, nahiz eta batzuetan ez den ageri literatura zientifikorik.	Diskurtsoa objektiboa da nagusiki, eta literatura zientifikoaren bidez justifikatuta dago.
	Laneko ideien erreferentziak behar bezala eman ditu, iturri bibliografiko askotarikoak, egungoak eta kalitatezkoak erabiliz (% 4)	Bere lanean ageri diren ideiek eta proposamenek ez dute erreferentzia bibliografikorik edo daudenak ez dira garrantzitsuak. APA arauak gaizki erabili ditu.	Ideien erreferentziak eman ditu, baina ez dira oso zehatzak, ez dira nahikoak edo eguneratu gabe daude. APA arauen erabilera irregularra da.	Erreferentziak behar bezala eman ditu, iturri bibliografiko garrantzitsuak erabiliz. APA arauen erabilera akats gutxi egin ditu.	Erreferentzia bibliografikoak eguneratuta daude eta garrantzitsuak dira. APA arauak modu zehatzean erabili ditu.	Erabilitako erreferentzia bibliografikoak lehen mailako iturri akademikoetatik datoz, eguneratuta daude eta behar bezala aipatu ditu.
Ahozko defentsa (% 25)						
Eremua	Adierazleak	Deskribatzaileak eta maila				
		Eskasa		Tartekoa	Aurreratua	
		1 (0-2)	2 (3-4)	3 (5-6)	4 (7-8)	5 (9-10)
ekoizpena (% 20) *HH/LH G4 / GH G3	Diskurtsoa argia da eta ongi antolatuta dago (% 5)	Zailtasun handiak izan ditu koherentziaz adierazteko.	Argi adierazi da, baina diskurtsoak ez du egitura koherenterik izan.	Diskurtsoa argia eta antolatua izan da.	Trebea izan da ideiak modu eraginkorrean eta erakargarrian aurkezten.	Komunikatzaile zehatza, argia eta eraginkorra dela frogatu du, eta konbentzitzea lortu du.
	Denbora modu eraginkorrean kudeatu du (% 5)	Azalpenak ematean, denbora ez du ongi kudeatu.	Ez du lortu ezarritako denbora mugetara egokitzea, gehiegi luzatzeagatik edo laburregia izateagatik.	Aurkezteko ezarritako denbora mugak bete ditu.	Azalpenetarako denbora modu egokian kudeatu du, ezarritako mugetara egokituta.	Lanaren zati garrantzitsuenak luzeago azaldu ditu.

	Baliabide egokiak erabili ditu lana azaltzeko (% 5)	Erabili dituen baliabideek ez dute laguntzen diskurtsoa ulertzen.	Ikus-entzunezko baliabide eta formatu gutxi erabili ditu.	Baliabide egokiak erabili ditu lana behar bezala azaltzeko.	Trebetasunez konbinatu ditu baliabideak, diskurtsoaren euskarri gisa.	Baliabide sorta zabala erabili du, eta komunikazio eraginkorra eta inpaktu bisual handikoa lortu du.
	Hitzik gabeko komunikazioa (keinuak, mugimenduak, begirada, ahotsaren erabilera...) egoerara egokitu du (% 5)	Hitzik gabeko komunikazioa ez du egokitu egoerara, eta bere keinuak ez zetozen bat mezuarekin eta testuinguruarekin.	Hitzik gabeko komunikazioaren erabilera oinarritzakoa izan da.	Hitzik gabeko komunikazioa menderatzen duela erakutsi du, egoerara egokituta.	Hitzik gabeko komunikazioa kontzienteki erabili du eta egoera bakoitzera egokitu du.	Hitzik gabeko komunikazioa menderatzen du, maila aurreratu eta estrategikoan. Entzuleekiko konexioa eta koherentzia transmititzen lagundu du horrek.
Erantzuna (% 5) *HH/LH G4 / GH G3	Epaimahaiak egindako galderei egoki erantzun die (% 5)	Zailtasun handiak izan ditu epaimahaiak egindako galderak eta ekarpenak ulertzeko.	Epaimahaiak egindako galderak eta ekarpenak ulertu ditu, baina zehaztasun txikiko erantzunak eman ditu.	Epaimahaiak egindako galderei eta ekarpenei modu egokian erantzun die.	Epaimahaiak egindako galderak eta ekarpenak oso ongi ulertu ditu, eta ongi argudiatutako erantzunak eman ditu.	Erantzun artikulatuak eman ditu, edo epaimahaiarekin hitz egin du modu egituratuan eta sinesgarrian, egindako galderen eta ekarpenen aurrean. Erabilitako iturriak menderatzen dituela frogatu du.

***GRALarekin lotutako gaitasun zehatzak:**

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUAK LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUAK	GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA
<p>G1. Lortutako ezagutza teorikoak eta praktikoak erabili, teoria eta praktika egungo hezkuntza errealitatearekin lotu eta ezagutza berriak sortu irakaskuntzarekin eta ikaskuntzarekin lotutako arazoei aurre egiteko.</p> <p>G2. Informazio garrantzitsua aukeratu, aztertu eta sintetizatu, eskolatzeko prozesuak hobetuko dituzten proiektuak diseinatze aldera.</p> <p>G3. Autonomia adierazi heziketa arloko gogoeta, argudio, iritzi akademiko eta profesionalean, baita erabakiak hartu eta arazoak konpontzerakoan, banaka zein talde barruan.</p> <p>G4. Komunikazio gaitasuna adierazi, ahoz zein idatziz, EAEko bi hizkuntza ofizialetan.</p>	<p>G1. Gizartearen eta hezkuntzaren errealitatea aztertu eta interpretatu, eta era berean banakoen, erakundearen eta lanbidearen bestelako arloen beharrak identifikatu, gizarte eta hezkuntza mailako ekintzak oinarritzeko.</p> <p>G2. Jarduteko proiektu berritzaileak diseinatu hainbat esparrutan eta Gizarte Hezkuntzaren arloko gai garrantzitsuetan aplikatu, koordinatu, balioetsi eta sakontzeko erabili.</p> <p>G3. Norberak bere GRALaren inguruan hausnartu, argudiatu eta defendatu.</p> <p>G4. Ikuspegi, metodologia eta ikerkuntza, ekintza eta hobekuntza teknika desberdinak erabili Gizarte Hezkuntzaren esparruetan.</p>